

## “HITZPASA” LEHIAKETAREN OINARRIAK

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna izango dela eta, Dbusek "Hitzpasa" lehiaketa antolatu du, Dbusen erabiltzaileen artean euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko asmoarekin.

"Hitzpasa" jarduera honetan datza, berez: hitz baten definizioa eta hitz horren lehen letra jakinda hitza asmatzea; hitzen erruletaren antzeko zerbait da.

### 1) PARTE HARTZEKO EPEA:

Parte hartzeko epea azaroaren 22tik, astelehena, abenduaren 2ra, osteguna, izango da. Abenduaren 3an jakinaraziko dira irabazleen izenak.

### 2) PARTE HARTZAILEAK:

Erabiltzaile guztiek parte hartu ahal izango dute, adin mugarik gabe.

### 3) JARDUERAREN FUNTZIONAMENDUA:

Parte hartzaileek inprimakian sartu beharko dira, han egongo baitira galderak. Autobusetako karteletan eta Dbusen webgunean (Albistek eta Jarduerak ataletan) zein sare sozialetan jarriko den QR kodearen bidez eskuratu ahal izango da inprimakia.

Hamar hitz izango dira asmatu beharrekoak, eta haien hasierako letra eta definizio osoa emango dira pista moduan. Parte hartzaileek beraien ustez zuzena den hitza idatzi beharko dute horretarako jarritako eremuan.

### 3) PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

Eremu guztiak bete beharko dira. Osorik beteta ez dauden inprimakiak ez dira kontuan hartuko zozketarako.

Ezinbestekoa izango da hamar hitzak ondo asmatzea.

Zozketan ez dira sartuko irainak eta hitz mingarriak eta lizunak dituzten erantzunak edo gaizki ulertuak eragin ditzaketenak.

Parte hartzeko, eremu guztiak bete beharko dira.

### 4) ZOZKETA

Erantzun bakoitzak zenbaki bat izango du, sartu den hurrenkeraren arabera. Zuzenak diren erantzunak bakarrik hartuko dira kontuan, hau da, eremu guztiak beteta eta hamar hitzak zuzen dituztenak.

Erakundeak ausaz aukeratuko ditu bost zenbaki, parte hartzaileen zerrendan egongo direnak.

## 5) SARIA:

Bost sari egongo dira, bat parte hartzaile irabazle bakoitzeko. Saria hilabete baterako garraio bonu bat izango da, 2022an gastatzeko. Parte hartzaileak berak nahi duen hilabetean erabili ahal izango du bonua.

Dbusen web orriaren bidez jakinaraziko da irabazlea, Albisteak eta Jarduerak ataletan, eta irabazleei posta elektronikoz edo telefonoz jakinaraziko zaie.

## 6) DATUAK BABESTEKO POLITIKA

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAUK (normalean "Dbus" izenez ezagutzen dena), tratamenduaren arduraduna den heinean, parte hartzaileek emandako datu pertsonalak tratatuko ditu, lehiaketan duten partaidetza kudeatzeko eta, hala badagokio, parte hartzaile irabazleei dagozkien sariak ematea eta sari horien gozamina kudeatzeko, betiere interesdunak berak eskatuta aplikatutako kontratu aurreko neurrietan eta/edo Oinarri hauek onartzean bi alderdien artean ezartzen den kontratu harremanean oinarrituta.

Aipatutako datu pertsonalak soilik legeak behartuta jakinarazi behar zaizkien erakunde eta/edo organismo publikoei jakinaraziko zaizkie.

Ez dago aurreikusita datu horiek nazioartean transferitzea.

Testuinguru horretan, datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa da eta kontratu baldintza da; horrela, datu horiek eman ezean, datu ez-osoak eman ez gero, ezin izango da lehiaketan parte hartzea kudeatu.

DBUSEK parte hartzaileen datu pertsonalak gordeko ditu lehiaketa behar bezala kudeatzeko behar den denboran, eta, beharrezkoa denean, legezko betebeharrak betetzeko bete beharreko epe gehigarrian.

Nolanahi ere, parte hartzaileek eskubidea dute (i) beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarriak izateko eskatzeko, edo datuok tratatzearen aurka egiteko, idatzizko eskaera [lopd@dbus.es](mailto:lopd@dbus.es) helbide elektronikora bidaliz; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan edo beste edozein kontrol agintaritzaren eskudunetan, bereziki beren eskubideak baliatzean pozik geratu ez badira.

DBUSEK Datuen Babesaren Ordezkeri (DBO) bat izendatu du, zeina erakundearen pribatutasuna kudeatzeaz eta kontrolatzeaz arduratuko baita eta zeinarekin harremanetan jarri ahal izango zaren [dpo@dbus.eus](mailto:dpo@dbus.eus) posta elektronikoko helbidearen bitartez.

Parte hartzaileek datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza dute DBUSEN web orriko ([www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)) "pribatutasun politika" atalean.

## 7) OHARRA:

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen ditugula eta epaimahaiak hartutako erabakiekin ados gaudela, erabakiak apelaezinak izango baitira.

Dbusek eskubidea du oinarri hauetan jasotzen ez diren gorabeherak ebazteko.